


## Zer da Batxilergoa?



Batxilergoa derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako etapa da. Bi kurtsotan egiten da eta ez da nahitaezkoa. Helburu garrantzitsuenak hauek dira:

- zu zeu adimenez eta gizatasunez heldua izatea.
- etapa honetan jasoko dituzun jakintza eta trebetasunetatik abiatu, gai izan beharko duzu gizarteko egin-kizunak trebetasunez eta ardura osoz gauzatzeko.
- Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasketak edo unibertsitateko ikasketak egiteko prestakuntza izatea.

# Batxilergoa hezkuntza sisteman



*Batxilergoko edozein modalitate egiteko, aurretik Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua edo Teknikari Titulua (Erdi Mailako Heziketa Ziklo bat gainditu ondoren lortzen dena) behar duzu. Lehenagoko hezkuntza sistemako hainbat ikasketaren ondoren ere Batxilergoan sar zaitezke.*

# Batxilergoaren egitura

## Modalitateak eta Ibilbideak

**Batxilergo MODALITATEAK 4** dira, eta horien barnean berariazkoagoak diren **IBILBIDEAK** ditugu, ikasleek etorkizunean egin nahi dituzten ikasketetara iristeko bidea eskaintzen dutenak.

### 1 ARTEAK

### 2 TEKNOLOGIA

### 3 NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK

1. *ibilbidea*. Zientziak eta Ingeniaritza

2. *ibilbidea*. Osasun Zientziak

### 4 GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

1. *ibilbidea*. Giza Zientziak

2. *ibilbidea*. Gizarte Zientziak

3. *ibilbidea*. Giza eta Gizarte Zientziak

## Kurtsoak eta Irakasgaiak

	1.	2.
KOMUNAK	5	4
MODALITATEKOAK	3	3
AUKERAKOAK	1	1

Batxilergoak **bi** kurtso ditu. Kurtso bakoitzean irakasten diren irakasgaiak hiru motatakoak dira:

- Irakasgai komunak (modalitate guztietan nahitaezkoak)
- Modalitate bakoitzak bere dituen irakasgaiak
- Aukerako irakasgaiak

*Curriculumak, kurtso bakoitzeko irakasgaiak eta horien ordu-banaketa indarrean sartuko dira 2002-2003 ikasturtean 1. kurtzorako eta 2003-2004 ikasturtean 2. kurtzorako.*

- D eredia ematen duten ikastetxeek asteko hiru eskola ordu gehiago izanen dituzte Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasteko.
- A eredia ematen duten ikastetxeek zilegi izanen dute asteko hiru eskola ordu gehiago jartzea Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasteko edo, bestela, aukerako irakasgai komunari dagozkion orduak irakasgai hori irakasteko erabil daitezke.

# Arteen Modalitatea



## 1. KURTSOA

<b>NAHITAEZKOAK</b>	KOMUNAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaztelania eta Literatura I 4 h.</li> <li>- Atzerriko Hizkuntza I 3 h.</li> <li>- Filosofia I 3 h.</li> <li>- Gorputz Hezkuntza 2 h.</li> <li>- Erljioa /H.J.A. 2 h.</li> </ul>
	MODALITATEKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Marrazketa Artistikoa I 4 h.</li> <li>- Marrazketa Teknikoa 4 h.</li> <li>- Bolumena I 4 h.</li> </ul>
<b>AUKERAKOAK</b>	HAUETATIK BAT AUKERATZEKO:	
		<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Atzerriko Bigarren Hizkuntza I</li> <li><input type="checkbox"/> Nafarroako Geografia eta Historia</li> <li><input type="checkbox"/> Informazioaren Teknologiak</li> <li><input type="checkbox"/> Musika 3 h.</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Arte Lantegiak</li> <li><input type="checkbox"/> Formaren Matematika 4 h.</li> </ul>

## 2. KURTSOA

<b>NAHITAEZKOAK</b>	KOMUNAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaztelania eta Literatura II 4 h.</li> <li>- Atzerriko Hizkuntza II 3 h.</li> <li>- Filosofia II 3 h.</li> <li>- Historia 4 h.</li> </ul>
	MODALITATEKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Marrazketa Artistikoa II 4 h.</li> <li>- Artearen Historia 4 h.</li> <li>- Adierazpen Grafikoaren eta Plastikoaren Teknikak 4 h.</li> <li>- Diseinuaren Oinarriak 4 h.</li> <li>- Irudia 4 h.</li> <li>- Marrazketa Teknikoa II 4 h.</li> </ul> <p><i>OHARRA: Ikastetxe bakoitzak hiru gaiko ibilbideak antolatuko ditu, ikasleen asmo-eskaeren eta dau- den baliabideen arabera.</i></p>
<b>AUKERAKOAK</b>	HAUETATIK BAT AUKERATZEKO:	
		<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Atzerriko Bigarren Hizkuntza II</li> <li><input type="checkbox"/> Nafarroako Geografia eta Historia</li> <li><input type="checkbox"/> Informazioaren Teknologiak</li> <li><input type="checkbox"/> Musika 3 h.</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Arte Lantegiak</li> <li><input type="checkbox"/> Formaren Matematika</li> <li><input type="checkbox"/> Bolumena II</li> <li><input type="checkbox"/> Modalitateko irakasgai bat (ikasleak halakotzat aukeratu ez duena) 4 h.</li> </ul>

# Teknologia Modalitatea

## 1. KURTSOA

<b>NAHITAEZKOAK</b>	<b>KOMUNAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaztelania eta Literatura I 4 h.</li> <li>- Atzerriko Hizkuntza I 3 h.</li> <li>- Filosofia I 3 h.</li> <li>- Gorputz Hezkuntza 2 h.</li> <li>- Erijiioa / H.J.A. 2 h.</li> </ul>
	<b>MODALITATEKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Matematika I 4 h.</li> <li>- Fisika eta Kimika 4 h.</li> <li>- Teknologia Industrial I 4 h.</li> <li>- Marrazketa Teknikoa I 4 h.</li> </ul> <p><i>OHARRA: Ikastetxe bakoitzak hiru gaiko ibilbideak antolatuko ditu, ikasleen asmo-eskaeren eta dauden baldabideen arabera.</i></p>
<b>OPTATIBAS</b>	<b>HAUETATIK BAT AUKERATZEKO:</b>	
		<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Atzerriko Bigarren Hizkuntza I</li> <li><input type="checkbox"/> Nafarroako Geografia eta Historia</li> <li><input type="checkbox"/> Informazioaren Teknologia</li> <li><input type="checkbox"/> Musika 3 h.</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> 1. kurtsoko modalitateko irakasgai bat (ikasleak halakotzat aukeratu ez duena) 4 h.</li> </ul>



## 2. KURTSOA

<b>NAHITAEZKOAK</b>	<b>KOMUNAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaztelania eta Literatura II 4 h.</li> <li>- Atzerriko Hizkuntza II 3 h.</li> <li>- Filosofia II 3 h.</li> <li>- Historia 4 h.</li> </ul>
	<b>MODALITATEKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Matematika II 4 h.</li> <li>- Fisika 4 h.</li> <li>- Marrazketa Teknikoa II 4 h.</li> <li>- Teknologia Industrial II 4 h.</li> <li>- Elektroteknia 4 h.</li> <li>- Mekanika 4 h.</li> </ul> <p><i>OHARRA: Ikastetxe bakoitzak hiru gaiko ibilbideak antolatuko ditu, ikasleen asmo-eskaeren eta dauden baldabideen arabera.</i></p>
<b>AUKERAKOAK</b>	<b>HAUETATIK BAT AUKERATZEKO:</b>	
		<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Atzerriko Bigarren Hizkuntza II</li> <li><input type="checkbox"/> Nafarroako Geografia eta Historia</li> <li><input type="checkbox"/> Informazioaren Teknologia</li> <li><input type="checkbox"/> Musika 3 h.</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Kimika</li> <li><input type="checkbox"/> Matematika sakontzen</li> <li><input type="checkbox"/> Modalitateko irakasgai bat (ikasleak halakotzat aukeratu ez duena) 4 h.</li> </ul>

# Natur eta Osasun Zientzien Modalitatea

## 1. KURTSOA

NAHITAEZKOAK	KOMUNAK	- Gaztelania eta Literatura I - Atzerriko Hizkuntza I - Filosofia I - Gorputz Hezkuntza - Erljioa / H.J.A.	4 h. 3 h. 3 h. 2 h. 2 h.
	MODALITATEKOAK	- Matematika I - Fisika eta Kimika - Marrazketa Teknikoa I / Biologia eta Geologia	4 h. 4 h. 4 h.
AUKERAKOAK	HAUETATIK BAT AUKERATZEKO:		
		<input type="checkbox"/> Atzerriko Bigarren Hizkuntza I <input type="checkbox"/> Nafarroako Geografia eta Historia <input type="checkbox"/> Informazioaren Teknologiak <input type="checkbox"/> Musika	3 h.
		<input type="checkbox"/> Marrazketa Teknikoa I / Biologia eta Geologia	4 h.



## 2. KURTSOA

NAHITAEZKOAK	KOMUNAK	- Gaztelania eta Literatura II - Atzerriko Hizkuntza II - Filosofia II - Historia	4 h. 3 h. 3 h. 4 h.
	MODALITATEKOAK	<input type="checkbox"/> <b>ZIENTZIEN ETA INGENIARITZAREN Ibilbidea</b> - Matematika II - Fisika - Marrazketa Teknikoa II / Biologia / Kimika	4 h. 4 h. 4 h.
		<input type="checkbox"/> <b>OSASUN ZIENTZIEN Ibilbidea</b> - Biologia - Kimika - Matematika II / Lurraren eta Ingurugiroaren Zientziak	4 h.
AUKERAKOAK	HAUETATIK BAT AUKERATZEKO:		
		<input type="checkbox"/> Atzerriko Bigarren Hizkuntza II <input type="checkbox"/> Nafarroako Geografia eta Historia <input type="checkbox"/> Informazioaren Teknologiak <input type="checkbox"/> Musika	3 h.
		<input type="checkbox"/> Geologia <input type="checkbox"/> Ekonomia <input type="checkbox"/> Matematika sakontzen <input type="checkbox"/> Modalitateko irakasgai bat (ikasleak halakotzat aukeratu ez duena)	4 h.

# Giza eta Gizarte Zientzien Modalitatea



## 1. KURTSOA

<b>NAHITAEZKOAK</b>	<b>KOMUNAK</b>	- Gaztelania eta Literatura I	4 h.
		- Atzerriko Hizkuntza I	3 h.
		- Filosofia I	3 h.
		- Gorputz Hezkuntza	2 h.
		- Erljioa /H.J.A.	2 h.
<b>NAHITAEZKOAK</b>	<b>MODALITATEKOAK</b>	<input type="checkbox"/> <b>GIZA ZIENTZIEN Ibilbidea</b>	
		- Mundu Garaikidearen H <sup>a</sup>	4 h.
		- Latina I	4 h.
		- Grekoa I	4 h.
		<input type="checkbox"/> <b>GIZARTE ZIENTZIEN Ibilbidea</b>	
		- Mundu Garaikidearen H <sup>a</sup>	4 h.
- Gizarte Zientziei aplikatutako Matm. I	4 h.		
		- Ekonomia	4 h.
<b>AUKERAKOAK</b>	<b>MODALITATEKOAK</b>	<input type="checkbox"/> <b>GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN Ibilbidea</b>	
		- Mundu Garaikidearen H <sup>a</sup>	4 h.
		- Latina I	4 h.
		- Gizarte Zientziei aplikatutako Matm. I	4 h.
		HAUETATIK BAT AUKERATZEKO:	
		<input type="checkbox"/> Atzerriko Bigarren Hizkuntza I	
		<input type="checkbox"/> Nafarroako Geografia eta Historia	
		<input type="checkbox"/> Informazioaren Teknologiak	
		<input type="checkbox"/> Musika	3 h.
		<input type="checkbox"/> Espaniako Literatura eta Literatura Unibertsala	
		<input type="checkbox"/> Modalitateko irakasgai bat (ikasleak halakotzat aukeratu ez duena)	4 h.

## 2. KURTSOA

<b>NAHITAEZKOAK</b>	<b>MODALITATEKOAK</b>	<b>KOMUNAK</b>	- Gaztelania eta Literatura II	4 h.
			- Atzerriko Hizkuntza II	3 h.
			- Filosofia II	3 h.
			- Historia	4 h.
			<input type="checkbox"/> <b>GIZA ZIENTZIEN Ibilbidea</b>	
			- Artearen H <sup>a</sup>	4 h.
			- Latina II	4 h.
			- Grekoa II / Musikaren H <sup>a</sup>	4 h.
			<input type="checkbox"/> <b>GIZARTE ZIENTZIEN Ibilbidea</b>	
			- Geografia	4 h.
		- Gizarte Zientziei aplikatutako Matm. II	4 h.	
		- Ekonomia eta Enpresen Antolamendua	4 h.	
<b>AUKERAKOAK</b>	<b>MODALITATEKOAK</b>	<input type="checkbox"/> <b>GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN Ibilbidea</b>		
		- Latina II	4 h.	
		- Gizarte Zientziei aplikatutako Matematika II	4 h.	
		- Geografia	4 h.	
		HAUETATIK BAT AUKERATZEKO:		
				<input type="checkbox"/> Atzerriko Bigarren Hizkuntza II
		<input type="checkbox"/> Nafarroako Geografia eta Historia		
		<input type="checkbox"/> Informazioaren Teknologiak		
		<input type="checkbox"/> Musika	3 h.	
		<input type="checkbox"/> Espaniako Literatura eta Literatura Unibertsala		
		<input type="checkbox"/> Modalitateko irakasgai bat (ikasleak halakotzat aukeratu ez duena)	4 h.	

## Ebaluazioa

Ebaluazioa etengabeko jarduera da, eta irakaskuntza-ren eta ikaskuntza-ren zatia da. Hiru aldiz egiten da, oro har, hiruhilekoen bukaeretan.

Irakasle taldeak, hiruhilean behin, zure ikasketaldia balioztatuko du; horretarako, hartu duzun arlo eta irakaskgai bakoitzeko kalifikazioak eta oharra emanen ditu.

- **Kalifikazioen** bidez balioztatzen dira jakintzak zenbateraino eskuratu diren eta gaitasunak zenbateraino garatu diren. Horretarako Otik 10era bitarteko eskala, hamarrenik gabekoa, erabiltzen da.
- **Oharretan** aditzera ematen dira irakasgaiak zuzan sortu duten interesa, ahalegina, errendimendua, etab.

Kurtso bakoitza bukatu ondoren, **azken ebaluazioa** egiten da. Irakasle taldeak kalifikazioak emanen ditu; horretarako, irakaskgai bakoitzari dagokionez, zer jakintza maila eskuratu duzun eta zein den zure heldutasun akademikoa kontuan izanen ditu. Horrez gain, bigarren kurtsoan, etorkizunean ikasten segitzeko zer aukera duzun ere aditzera emanen dizu.





## Hurrengo kurtsora igarotzea



1. kurtsotik 2.era igaro zaitezke **gehienez ere errekueratze**ko bi irakasgai edukita (irakasgaia aukerakoa bada, bi aukera dituzu: bata, errekueratzea edo, bestea, beste irakasgai batez ordezkatzeta). Errekueratze

Bestalde, 2. kurtsoa bukatu ondoren errekueratze

Batxilergoan gehienez ere lau urtez egon zaitezke eguneko araubide ofizialean.

## Titulazioa

**Batxilergoko Titulua** erdiesteko, behar-beharrezkoa da bi kurtsoetako irakasgai guztietan ebaluazio positiboa jasoa izatea.



*Batxilergoko  
Titulua*

## Ondorengo ikasketak (araubide orokorra)

### Berariazko Lanbide Heziketa, eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Heziketa Zikloak

#### Berariazko Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloetan nola sartu

Batxilergoko Titulua (edozein modalitate egiten duzula ere) eskuratu baduzu, **Goi Mailako Heziketa Ziklo guztiak ikasteko aukera duzu**. Baina, etapa honetan aukeratu dituzun Batxilergo modalitatearen eta irakasgaien arabera, ikasketa batzuk egiteko lehentasuna izanen duzu beste batzuen aurretik.

Nafarroako ikastetxeetan irakasten diren Goi Mailako Lanbide Heziketako Zikloetan sartzeko lehentasunak hurrengo orrialdeko laukian daukazu.

#### Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Zikloetan nola sartu

Batxiler titulua izateaz gain, **gaitasun artistikoari buruzko proba** bat gainditu beharko duzu. Proba hau urtero egiten da, deialdi bakar batean.

Ez duzu proba hau egin beharko Arte Batxilergoko titulua baduzu, eta "Diseinuaren Oinarriak" irakasgaia gainditu baduzu.

Batxilergoa Arteen modalitatean egin dutenek izanen dute lehentasuna Arte Plastiko eta Diseinuko Hezkuntza-Zikloetan sartzeko.



## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO LEHENTASUNA

Goi mailako heziketa zikloa	Natur eta Osasun Zientziak	Giza eta Gizarte Zientziak	Teknologia	Arte
Nek. eta abeltz. enpresen kudeaketa eta antolaketa	•		•	
Natur eta paisaia baliabideen kudeak. eta antolak.	•		•	
Administrazioa eta finantzak	•	•		
Idazkaritza	•	•		
Arte grafikoetako industrien produkzioa	•		•	
Nazioarteko merkataritza	•	•		
Merkataritzako kudeaketa eta marketina	•	•		
Garraioaren kudeaketa	•	•		
Kontsumitzailearen zerbitzua	•	•		
Eraikuntza proiektuen garapen eta aplikazioa	•		•	
Proiektu elektronikoaren garapena	•		•	
Instalazio elektroteknikoak	•		•	
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak	•		•	
Telekomunikazio eta informatika sistemak	•		•	
Metalezko eraikuntzak	•		•	
Proiektu mekanikoaren garapena	•		•	
Mekanizazio bidezko produkzioa	•		•	
Jatetxe arloa	•	•		
Estetika	•	•		
Elikagaien industria	•		•	
Informatika sistemen administrazioa	•	•	•	
Informatika aplikazioen garapena	•	•	•	
Zurgintza eta altzairugintza	•		•	
Automozioa	•		•	
Industri ekipoen mantenimendua	•		•	
Lanbideko arriskuei aurrea hartzea	•	•	•	
Analisi eta kontrola	•		•	
Anatomia patologikoa eta zitologia	•			
Osasun dokumentazioa	•	•		
Aho eta hortzean higieena	•		•	
Diagnosi irudia	•		•	
Diagnosi klinikoaren laborategia	•		•	
Hortz protesiak	•		•	
Ingurugiro osasuna	•		•	
Gizarte eta kultur jardueren sustapena	•	•	•	
Haur hezkuntza	•	•	•	•
Gizar te integrazioa	•	•	•	

## Unibertsitateko ikasketak

Batxilergoa gainditu ondoren unibertsitateko karrera bat ikastea erabaki baduzu, gogoan izan unibertsitatean sartzeko **bost sarbide** dituzula. Sarbide horiek Batxilergoko modalitateekin erlazionatuta daude eta sarbide bakoitzaren baitan karrera multzo bat dago eta sarbide bakoitzak behartzen du Unibertsitatean sartzeko proban irakasgai jakin batzuen azterketa egitera.

Ondorengo laukian, besteak beste, honakoa dago: gaur egun unibertsitatean sartzeko dituzun bideak, sarbide bakoitzari atxikitako irakasgaiak –sarbide bakoitzaren sarbide probetan irakasgai horien azterketa nahitaez egin beharko duzu– eta irakasgai horiek Batxilergoko zein modalitatetan ikasten diren.

SARBIDEAK	Irakasgai atxikiak (Nahitaezkoak sarbide proban)	Batxilergoko modalitatea
ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA	- Matematika II - Fisika	- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK - TEKNOLOGIA
OSASUN ZIENTZIAK	- Biologia - Kimika	- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
GIZA ZIENTZIAK	- Latina II - Artearen Historia *	- GIZA ZIENTZIAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK
GIZARTE ZIENTZIAK	- Gizarte Zientziei aplikatutako Matematika II - Geografia	- GIZA ZIENTZIAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK
ARTEAK	- Artearen Historia - Marrazketa Artistikoa II	- ARTEAK

\* EAOn noiz argitaratuko den zain.

## **Sarbide proba**

Unibertsitateko ikasketak egiteko nahitaez **“Sarbide proba”** gainditu behar da. Proba horrek bi zati ditu: lehen, Batxilergoko irakasgai komunak gainekoa eta, bigarrena, Batxilergoko bigarren kurtsoko modalitateko irakasgaiak gainekoa.

- **Lehen zatiak** (zati komunak) hiru ariketa ditu:

1. Testu historiko bat aztertzea.
2. Atzerriko hizkuntza batean idatzitako testu bat aztertzea.
3. Gaztelaniaz idatzitako testu bat aztertzea.

D hizkuntz ereduko ikasleek laugarren ariketa bat ere egin beharko dute, hots, euskaraz idatzitako testu bat aztertu beharko dute.

DBHn eta Batxilergoan A hizkuntz eremuan ikasi duten ikasleek laugarren ariketa bat ere egin beharko dute, hots, euskaraz idatzitako testu bat aztertu beharko dute.

- **Bigarren zatia** (zati berariazkoa)

Hiru ariketa ditu, zein modalitate ikasi den, hari dagozkie hiru irakasgai buruzkoak. Irakasgai horietako bi aukeratu den sarbideari atxikitako irakasgaiak izanen dira eta hirugarrena, bigarren kurtsoko modalitateko irakasgaien artean aukeratuko izanen da.

## **Probaren kalifikazioa**

Ariketa bakoitza 0 eta 10 bitartean kalifikatuko da.

Lehen zatiaren kalifikazioa hau izanen da: hiru ariketatako bakoitzean edo, A eta D ereduak dagokienez, lau ariketatako bakoitzean lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa.

Bigarren zatiaren kalifikazioa hau izanen da: sarbideari atxikitako irakasgaietan lortutako kalifikazio bakoitzaren %40 gehi aukeratu den modalitateko irakasgaietan lortutako kalifikazioaren %20.

**Probaren kalifikazio osoa** hau izanen da: bi zati horietan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa.

Unibertsitatean sartzeko **behin betiko kalifikazioa** hau izanen da: probaren kalifikazio osoaren %40 –ez da inolaz ere 4 puntutik beherakoa izanen– gehi ikaslearen Batxilergoko ikasketa espedientearen batez besteko kalifikazioaren %60 –ez da Erljioa irakasgaiaren kalifikazioa kontuan izanen–.

Unibertsitatean sartzeko proba gaindituzat emateko, **behin betiko kalifikazioan bost puntu edo gehiago atera beharko dituzu.**

Bi sarbideri dagozkien probak egiten badituzu, bigarren zatian bi kalifikazio izanen dituzu. Horiek, aldi berean, behin betiko bi kalifikazio sortuko dituzte, sarbide bakoitzeko bat.

Ikasleek epaimahaiburuari eska diezaioke ariketen zuzenketa berrikustea, kalifikazioak argitaratu eta hiru egun balioduneko epean.

## UNIBERTSITATEKO KARRERAK

## SARBIDEAK

### Lizentziaturak, Arkitektura eta Ingeniaritzak

Zientzia eta Teknika  
Osasun Zientziak  
Giza Zientziak  
Gizarte Zientziak  
Arteak

	Zientzia eta Teknika	Osasun Zientziak	Giza Zientziak	Gizarte Zientziak	Arteak
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza	●	●	●	●	●
Arkitektura	●	●			
Arte Ederrak	●	●	●	●	●
Biologia	●	●			
Ingurugiroaren Zientziak	●	●			
Gorputz eta Kirol Jardueraren Zientziak	●	●	●	●	●
Itsasoaren Zientziak	●	●			
Politikaren eta Administrazioaren Zientziak	●	●	●	●	●
Ikusentzunezko Komunikazioa	●	●	●	●	●
Zuzenbidea	●	●	●	●	●
Ekonomia	●	●		●	
Farmazia		●			
Filologia			●		
Filosofia	●	●	●	●	●
Fisika	●	●			
Geografia	●	●	●	●	●
Geologia	●	●			
Historia			●	●	●
Artearen Historia			●	●	●
Giza Zientziak	●	●	●	●	●
Aeronautikako Ing.	●	●			
Nekazaritza Ing.	●	●			
Bide, Ubide eta Portuetako Ing.	●	●			
Mehatzetako Ing.	●	●			
Mendi Ing.	●	●			
Telekomunikazio Ing.	●	●			
Informatika Ing.	●	●			
Industri Ing.	●	●			
Ontzigtintzako eta Ozeanoko Ing.	●	●			
Ing. Kimikoa	●	●			
Matematika	●	●			
Medikuntza		●			
Odontologia		●			
Pedagogia	●	●	●	●	●
Kazetaritza	●	●	●	●	●
Psikologia	●	●	●	●	●
Publizitatea eta Harreman Publikoak	●	●	●	●	●
Kimika	●	●			
Soziologia	●	●	●	●	●
Itzulpengintza eta Interpretaritza	●	●	●	●	●
Albaitaritza		●			

## UNIBERTSITATEKO KARRERAK

### Diplomaturak, Arkitektura Teknikoak eta Ingeniaritza Teknikoak

## SARBIDEAK

Zientzia eta Teknika  
Osasun Zientziak  
Giza Zientziak  
Gizarte Zientziak  
Arteak

Arkitektura Teknikoa	●	●	●	●	●
Bibliotekonomia eta Dokumentazioa	●	●	●	●	●
Enpresa Zientziak	●	●		●	
Gizarte Hezkuntza	●	●	●	●	●
Erizaintza		●			
Estatistika	●			●	
Fisioterapia		●			
Kudeaketa eta Administrazio Publikoa	●	●	●	●	●
Aeronautikako Ing. Tek.	●	●			
Nekazaritzako Ing. Tek.	●	●			
Mehatzetako Ing. Tek.	●	●			
Herrilantetako Ing. Tek.	●	●			
Telekomunikazioko Ing. Tek.	●	●			
Diseinu Industrialeko Ing. Tek.	●			●	●
Kudeaketarako Informatikako Ing. Tek.	●	●			
Sistemen Informatikako Ing. Tek.	●	●			
Topografiako Ing. Tek.	●				
Oihanetako Ing. Tek.	●	●			
Industri Ing. Tek.	●	●			
Ontzigitzako Ing. Tek.	●	●			
Logopedia	●	●	●	●	●
Maisutza	●	●	●	●	●
Ontzigitzako Makinak	●	●			
Itsasketa	●	●			
Optika eta Optometria	●	●			
Podologia		●			
Ontzigitzako Erradioelektronika	●	●			
Lan Harremanak	●	●	●	●	●
Lan Bidezko Terapia	●	●	●	●	●
Gizarte Lana	●	●	●	●	●
Turismoa	●	●	●	●	●
Giza Nutrizioa eta Dietetika		●			



## Zerbitzuak eta bekak



Ikastetxeak –bakoitzak bere kokapen, tamaina eta instalazioen arabera– zerbitzu hauek eskain diezazkizuke: jantokia, eskola garraioa, ostatua, kirol jarduerak, aisiarako jarduerak eta abar. Zerbitzu horien gaineko argibideak Ikastetxeko Idazkaritzan eska ditzakezu.

Unibertsitateek ostatuaren eta beste zerbitzu batzuen (jantokia, liburutegia, kirol instalazioak, etab.) gaineko argibideak eskaini ohi dituzte.

### Bekak

Batxilergoa edo Goi Mailako Heziketa Zikloak egin nahi izanez gero, bi aukera dituzu: **Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren beka eta Nafarroako Gobernuaren deialdi osagarriko beka eskatzea.** Horretarako inprimakiak estankoetan har ditzakezu eta zein ikastetxetan egin behar duzun matrikula, hartan aurkeztu.

Unibertsitate ikasketak egiteko matrikula egin dutenek ere eska dezakete Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren edo Nafarroako Gobernuaren beka, baita Nafarroako unibertsitateetatik kanpo matrikulatu badira ere. Beka horiez gain, unibertsitateek ere badituzte ikasleari laguntzak emateko berariazko deialdiak. Horretarako betebeharrak hainbat dira.

Goian aipatu ditugun deialdi horietako edozeinetan parte hartu nahi izanez gero, kontuan izan ezazu betebeharrak bi motatakoak direla: ekonomikoak eta akademikoak.



# Beste ikasketa batzuk

## ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZA

### ARTEEN IRAKASKUNTZA

Kontserbatorioetan eta Erdi Mailako Ikastetxeetan irakasten dira, besteak beste, musika, dantza edo pintura. Ikasketa horiek egiteko sarbide proba gainditu beharko duzu. Ikasketa horiek gainditu ondoren eta Batxiler Titulua eskuraturik, Goi Mailako Kontserbatorioko Goi Mailan sartzeko proba egin dezakezu.



### HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA

Ikasketa horiek Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialetan, eta Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean egin daitezke. Irakasteko lau modalitate daude: ofiziala, irekia, urrutikoa eta mistoa. Azkenean Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek bakarrik har dezakete parte. "Lankidetzeta Programa" da eta Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialarekin koordinatuta lantzen da.

Arteen irakaskuntza zein hizkuntzena bereziak dira. Horrenbestez, ikasketa horiek irakasten dituzten ikastetxeek argitara ematen dituzten foiletoak begiratzea beharrezkoa da.

## ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA

Unibertsitateko ikasketez, Berariazko Lanbide Heziketaz eta Araubide Bereziako Irakaskuntzaz gain, "arautu gabeko prestakuntza" aukera dezakezu. Ikasketa espezializatuen eskaintza zabala da eta horietan sartzeko baldintzak askotarikoak izan ohi dira. Prestakuntza hori bukatu ondoren **ikastetxe horiek euren tituluak ematen dituzte eta titulu horiek ez dute balio akademikorik.**



## Argibide gehiagorako

Gida honetako Araubide Orokorreko zein Araubide Bereziko ikasketen gaineko argibide gehiago nahi baduzu, hiru aukera dituzu: lehena, ikasketa mota horietako bakoitzari dagozkion gidak begiratzea; bigarrena, zeure **Ikastetxeko Orientabide Departamentuan** galdetzea eta, hirugarrena, **Nafarroako Gobernu Hezkuntza eta Kultura Departamentukoekin** harremanetan jartzea.



Hezkuntza eta Kultura Departamentua  
**Guraso eta Ikasleentzako**  
**Informazio eta Aholkularitza Bulegoa**  
Tel: 948 426 617  
[www.pnte.cfnavarra.es](http://www.pnte.cfnavarra.es)  
[educacion.informacion.alumnos@cfnavarra.es](mailto:educacion.informacion.alumnos@cfnavarra.es)



**Argitaratzailea:** Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua  
**Diseinua:** Rebeka Arraras  
**Argazkiak:** Larrión eta Pimoulier, Photodisc  
**Imprimatzailea:** Ona Industria Gráfica  
**L.G.:** NA-872-2001